



IV. ERANSKINA

2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA-KIROLEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK EZAGUTZEKO, ONARTZEKO ETA HAIEKIN KONPROMETITZEKO DOKUMENTUA AITAK/AMAK EDO TUTOREAK

_____, jaunak/andreak, NAN/AIZ zenbakia
_____, duenak, bere izenean eta
_____, interesdunaren (adingabearen)
aita/ama/tutore gisa,

HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

- Jaso eta irakurri dut jardueraren ardura duen erakundeak COVID-19ari aurre egiteko prestatu duen Prebentzio eta Jarduketa Protokoloa, eta badakit bertan zer ezartzen den.
- Hitzematen dut kirol-erakundearekin lankidetzan jardungo dudala protokoloan ezarritako neurriak, bereziki nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea kontzientziatzearekin eta sentsibilizatzearekin zerikusia dutenak, betetzeko, prebentzio-eta higiene-neurriak hartzeko bere erantzukizun indibidualari dagokionez.
- Saio, entrenamendu edo lehiaketa bakoitzaren aurretik egiaztatuko dut nire ardurapean dudan seme-alabaren edo adingabearen osasun-egoera, eta COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat badu, adibidez, 37°tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentsazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa, ez da jarduerara joango. Horrez gainera, berehala emango diot egoera horren berri kirol erakundeko osasun-arduradunari eta dagokion osasun-zentroari.
- Era berean, kirol-erakundeko osasun-arduradunari jakitera emango diot familiako bizikidetzta-unitateko pertsona bat (kirola egiten duen adingabea bera edo beste pertsona bat) COVID-19a diagnostikatu diotelako isolatuta badago edo COVID-19aren sintomak dituen edo COVID-19a diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izategatik etxean berrogeialdia betetzen ari bada.
- Baimena ematen dut, baldin eta COVID-19a diagnostikatutako pertsonen kontaktuak aurkitzeko osasun-agintariek eskatzen badute, erakundeak nirekin edo tutorea den beste pertsona batekin harremanetan jartzeko erregistratuta dituen datu pertsonalak emateko.



- Nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea ez dago osasun-agintariak ezarritako arrisku-talderen batean, edo, hala balitz, egoera horren berri emango diot kirol erakundeari jarduerari hasiera eman aurretik, eta, kasu horretan, nire erantzukizunean parte hartuko du jardueran.
- Onartzen ditut kirol-erakundeak jardueretan parte hartzeko ezarritako baldintzak eta, ondorioz, baimena ematen diot nire ardurapean dudan seme-alabari edo adingabeari 2020-2021 ikasturteko eskola-kiroleko programan parte hartzeko.

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)an

Izenpetua

